


EKAINEN BILERA INFORMATIBOAK

ETXEKOTZEA: ELKAR EGOKITZE PROZESUA

1. ZER ESAN NAHI DU ETXEKOTZEA?

Haurren hezkuntzan parte hartzen dugun pertsona guztien arteko loturak ezartzea. Haurra, familia eta hura zainduko duten irakasleen arteko konfiantzazko harreman hurbila lortzea. **Etxeko bihurtzea.**




Alde-biko hartuemana eraikitzea

Egokitzapen aldi honetan pixkanaka ezagutu behar dugu elkar. Familiak ikastola, beste heldu batzuk eta harremanak ezartzeko eta arreta emateko beste eredu batzuk ezagutu behar ditu eta hezitzaileek aldiz, gure hurbilpen eta konfiantza adierazi gure artean harreman berriak eraiki ahal izateko.

Haurrari dagokionean, hezitzaileekin atxikitze gaitasuna eta lotura afektibo esanguratsua lortzea dugu helburu. Testuinguru zaindu eta erantzun sentikorren bidez atxekimendu segurua sustatuz.

Bizi esperientzia hau elkarrekin partekatzea. Komunikazio eta elkarrekiko begirunea. Gure arteko iritziak entzun, ideiak, bizipenak,... partekatuz.



Haurra ikastolara doan lehendabiziko aldia asko zaindu beharreko momentua da. Esperientzia positiboa behar du izan umearentzat. Bakoitzak bere izaera eta erritmoa popioa du eta hori errespetatzen saiatuko gara momento oro.

Horretarako:

- o Gurasoekin komunikazio estua eta konfiantzazkoa izatea.
- o Haur bakoitzaren egokitzapen erritmoa errespetatzea
- o Ikastolan emango duen denbora eten edo luzatzea.
- o Etxetik ikastolara trantsizio leuna bermatzea.
- o Haur eta irakasleen arteko elkarrekintza sentikorrak izatea.
- o Testuinguru atseginak, erakargarriak, ...

Egokitzapen aldi honetan haurren premia oinarritzkoenei begirunez erantzun behar zaie. Jokaera hori lasaigarria da haurrentzat eta horixe behar dute seguru sentitzeko. Atsedeen erritmoekiko errespetua, elikadura, banan-banakako arreta,... kontuan hartu beharreko alderdiak ikasturte osoan zehar, baina lehenengo egunetan bereziki.



1. NOLA BIZI DU HAURRAK?

Haurrentzako aldaketa asko dira. Modu ezberdinetan adieraziko dute: batzuk, hasiera-hasieratik, ez dute ikastolara etorriko nahi izango, eta negarrez adierazten dute; beste batzuk aldiz, hasieran, oso gustura ibiltzen dira, eta banaketa honen ondorioak geroago azaltzen dituzte. Horregatik, hurrei denbora eman behar zaie egoera berri honetara moldatzeko, pazientzia osoz.

2. NOLA BIZI DUTE GURASOEEK?

Gurasoentzako ere gogorra izaten da prozesu hau. Beraien haur txikiaren heziketa pertsona ezezagun baten esku uzten dute. Hasieran, urduritasuna eta beldurra dira nagusi, baina irakasle-familia arteko konfiantzazko komunikazio egoki batekin dena errazago izango da denentzako.

Badakigu egiten dugun planteamendu hau zuentzat gogorra dela, zuen partetik esfortzu handia suposatzen duelako baina haurarentzat egokiena dela uste dugu,. Agian irailean zuen errutina aldatu egingo da, horregatik, zuek antolatu ahal izateko, orain azaltzen dizuegu hau guztia, irailean kontuan izan dezazuen.



2. ETXEKOTZE ALDIA ASEBETEGARRIA IZAN DADIN JARRAITU BEHARREKO GOMENDIOAK:

- Etxeko antolaketaren barruan, eskolaratzearen hasiera kontuan hartu.
- Etxekotzea egin ahal izateko umeak beharrezkoa izango duen denbora sar ezazu antolaketa horren barruan.
- Lanera joan behar izanez gero, laguntza eskatu inguruan dituzuen familiakide, lagun, zaintzaile, eta abarrei.
- Etapa berri hori ahalik eta lasaien hartu eta umeak izan ditzakeen jarrerak ulertzen saiatu.
- Kezkak irakaslearekin komentatu, horretarako gaude eta.
- Etxekotze aldian umearentzako erreferentziazko heldua, berdina izan dadin saiatu.
- Jesarrita egon irakasleak horretarako jarritako eserlekuetan.
- Irakaslearen pautak onartu eta jarraitu: ez egin konparaketarik, isilik egon eta mugikorrak itzalita izan.
- Jostailurik ez atera.
- Lasaitasunez egon.
- Ez derrigortu jolastera umea.
- Batzuetan aldaketak egoten dira umearengan: ondo hasi ondoren txarrerantz egin dezake, txarto jaten hasi daiteke, loan aldaketak eman daitezke...
- Prisarik ez hartu.
- Haurrari agur esan behar zaio.

3. ZERK ADIERAZTEN DU HAURRA ONDO ETXEKOTU DELA IKASTOLARA?

- Haurra ikastolako espazioan eta irakasleekin seguru eta eroso dagoela ikustea.
- Zenbait aldaketa eginda ere lasai jarraitzen duela sumatzea.
- Jolasteko gogoazaltzea.
- Gainontzeko hurrekin eta helduekin gogo onez harremanetan sartzea.
- Zer nahi duen eta zer behar duen beldur gabe adieraztea.
- Haur bakoitzak bere izaera, segurtasuna, motibazioa ... azaleraitea.
- Nork bere berezitasuna eta banakotasuna agertzea.
- Lasaitasun osoz sartu eta irteten denean.
- Eguneroko une desberdinetan naturaltasunez parte hartzen duenean